

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

## **Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**



### **KAZETARITZAKO GRADUA IKASTURTEA 2019-2020**

### **BEGI ARGIZ**

**EGILEA:** Udane Arbeo Astigarraga  
**ZUZENDARIA:** Guillermo Gurrutxaga Redondo

Leioa, 2020ko irailaren 7a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

## **Aurkibidea**

---

1. SARRERA.....	4
1.1 Lanaren aurkezpena eta aurrekariak .....	4
1.2 Ideiaren jatorriak .....	4
2. PROIEKTUAREN GARAPENA.....	5
2.1 Testuingurua .....	5
2.2 Egindako lanaren deskribapena.....	6
2.3 Egindako lanaren diseinua .....	10
3. PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA .....	13
4. ONDORIOAK .....	13
BIBLIOGRAFIA .....	15

### **1.SARRERA**

---

#### 1.1 Lanaren aurkezpena eta aurrekariak

Ekologia gaur egun gizartean geroz eta barneratuago dagoen arloa da. Izaki bizien eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen dituen jakintza bezala definitzen du euskaltzaindiak. Ideia horrek hainbat barne atal hartzen ditu aintzakotzat, beti ere gizakia eta natura edo ingurua batzen dituenak: izakion osasuna, nekazaritza, elikadura eta ingurumena, besteak beste.

Ekologiaren inguruko kezka, kontzientzia eta jakinmina gero eta handiagoa da. Hala ere, lan asko dago egiteko oraindik. Nik nire aletxo jarri nahi izan dut proiektu honekin, ekologian espezializatutako prentsa alternatibo bat sortuz. Bertan kazetaritza genero desberdinak daude: elkarrizketa sakona, erreportajea, fotoerreportajea... Baina nabarmendu nahi dut tentuz landutakoak direla horiek guztiak.

Jada Euskal Herrian badira zenbait aldizkari nekazaritzan murgiltzen direnak: Etxalde, Enba, Ardatza eta Ekolurra, esaterako. Horiek, ordea, nekazaritza mundua lantzen dute. Gainera, bi hizkuntzetan idazten dituzte, euskaraz eta gazteleraz. Nik lehenengotik argi nuen euskara hutsean eta ekologian nekazaritzaz haratago landu nahi nuela.

Espania mailan Integral edo Cuerpo y Mente bezalako aldizkariak daude. Horiek eredugarriak izan ziren lan honi ekin nionean, inspirazio iturri handiak baitira. Biek osasun naturala, elikadura eta natura lantzen dituzte gehienbat. Euskal Herriko merkatuan horrelako aldizkariren baten beharrezko sumatzen nuen, eta hori abiapuntutzat hartuz Begi Argiz aldizkaria sortzea erabaki dut, ekologia ardatz duena eta hainbat esparru lantzea ahalbidetu didana. Hala nola, baratzeko mundua, errezetak, medikuntza alternatiboa eta ingurumena. Izan ere, horien inguruan kontzientzia areagotzea da xede nagusia.

#### 1.2 Ideiaren jatorriak

Gratu Amaierako Lanean alorren baten inguruan kazetaritza espezializatua egin behar nuela jakitean, ilusio handia egin zidan. Hasieratik, erabakia nuen zerbait sortu nahi nuela, baina ez nekien zehazki zer. Beti amestu izan dut aldizkari bat sortzearekin, baina

## Espezializazioa kazetaritzan

erronka gogortzat nuen. Horretarako unea zela sentitu, eta trena igaro baino lehen, beldurrak alde batera utzi eta ideia horri eutsi nion.

Txikitatik naturarekin erlazio berezia izan dudala esango nuke, asko eskaini dit. Gainera, baserri batean bizi naiz, eta horren bidez ingurumenaren, nekazaritzaren eta ekologiaren inguruan ikasteko aukera izan dut. Bizipen jakin batzuk izateak ezagutza asko ekarri dizkit. Hazten joan ahala, kontzienteagoa nintzen, baina nire inguruko gehienek ekologiari, jaten dutenari, osasunari, ingurumenari... horrenbesteko garrantzirik ez ziotela ematen ohartu nintzen. Dena ohitura kontua da, irakasten digutenaren arabera. Behin horiek barneratuak ditugunean zaila egiten zaigu aldatzea.

Hortaz, ekologian espezializatutako proiektu bat egitea egokia iruditu zitzaidan. Interes handia nuen eta oraindik gehiago ikasteko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Gainera, gizartean horren inguruko informazioa hedatuz gero, kontzientzia areagotu nezakeela otu zitzaidan. Gaur egun, gizartean kezka puntu bat ikusten da, eta nire aldizkariarekin are gehiago informatzeko aukera eskaintzea onuragarria iruditzen zitzaidan.

## **2. PROIEKTUAREN GARAPENA**

---

### 2.1 Testuingurua

---

Ekologian oinarritutako 22 x 27,5 zentimetroko aldizkaria sortu dut. Orotara, 32 orrialde ditu, eta lehen aipatu bezala kazetaritza genero desberdinek osatzen dituzte. A4 neurriaren antzekoa da, baina estetikoki politagoa iruditzen zitzaidan nik egindakoa. Proiektuari ekin nionean, izena pentsatzen hasi nintzen. Hainbat aukeren ondoren, egokiena Begi Argiz izan zen. Izan ere, egungo egoera eta gertaerak hedatu nahi ditut hilabetekari honen bidez. Era horretara, euskal irakurleak informatu eta gertatzen denaz ohartarazi nahi ditut. Alegia, begiak irekita izan ditzaten nahi dut; beti ere informazioa argi azalduta, inor zentsuratu gabe, aldizkari independentea izanik eta inoren men egon gabe. Aldizkariaren ale bakoitzak begi argiz hartuko du irakurle bana.

Bestalde, gaur egun papereko euskarriek arrakasta gutxiago izan arren, horren aldeko apustua egitea erabaki dut. Garestiagoa bada ere, askoz erosoagoa iruditzen zait aldizkaria irakurri nahi duenak esku artean izatea. Pantailen aurrean orduak pasatzen

## Espezializazioa kazetaritzan

ditugu eta Begi Argiz patxadaz, erlaxatzeko uneren bat izatean irakurtzea aholkatzen dut. Bertan eskaintzen den informazioan arreta jartzeak merezi du, irakurleak ikasi eta aldi berean goza dezan egina baitago, informatzeaz gain.

Hilabetekariaren sortzaile eta editore izanik, aldizkaria atal desberdinetan banandu dut: *Baratzean*, *Elikadura*, *Ingurumena* eta *Osasuna*. Era horretara, ekologiaren hainbat esparru aztertu ditut. Bestalde, kontsumo jasangarriaren aldeko produktuak eskaini edo sustatu nahi izan ditut. Horrela, irakurleak etorkizunera begira ohitura hobek hartzea da helburua, hurrengo belaunaldiak horretara bultzatuz.

Eduki horien lanketa fokatzeko unean, idazkera estiloari dagokionez, argia eta ulerterraza da, euskal herritarrei zuzendua eta euskara hutsean idatzia. Diseinuaren estiloan aldiz, hainbat irudi, eta ilustrazio erabili ditut. Horrela, ikusgarriagoa izanik, ulerterrazagoa eta eramangarriagoa da, irakurtzerako orduan irudiak tartekatuta baitituzte.

Argazkilaritza oso gustuko dut eta diseinu aldetik erakargarriagoa egiteaz gain, oso lagungarriak iruditzen zaizkit horiek erabiltzea. Hori dela eta, aldizkariko argazki guztiak nireak izatea nahi nuen. Egungo egoerak baldintzatuta, ordea, ezinezkoa egin zait, nahiz eta gehienak nireak diren.

### 2.2 Egindako lanaren deskribapena

Ekologian espezializatuko nintzela erabaki bai, baina zein gai landuko nituen ba al nekien? Otsailean hasi nintzen Begi Argizekin, eta aldizkari bat izango zenez, zein kazetaritza genero landu pentsatu behar izan nuen lehendabizi. Testuak eta irudiak tartekatu nahi nituen, horiek joko ematen dutela uste baitut. Testu gehiegik irakurlea nazkatu zezakeela pentsatu nuen. Hortaz, argazki eta testuak nahastea erabaki eta hilabetekariari bizitasuna eman diola esango nuke.

Aldizkaria pixkanaka aztertuz gero, azalari dagokionean, indarra izango zuen irudi bat hautatu nahi nuen, aldizkariaren balioekin eta ekologiarekin bat etorriko zena.

Lehenengo ale honetan fotoerreportajearekin zerikusia duen argazki bat aukeratu dut. Baliteke norbaitek ekologiarekin kontrajarria dela pentsatzea, nekazaria traktore

## Espezializazioa kazetaritzan

gainean agertzen baita. Gaur egun, ordea, baratze ekologiko bat gauzatzeko erabiltzen den garraioa da hori. Horrek ez du esan nahi baratzean ekoiztutako produktuak ekologikoak ez direnik. Ekologikoki hazitako elikagaiak produktu kimikorik gabe ekoizitakoak dira. Alegia, landarea bera nekazariak nola zaindu duenaren arabera da, eta baratze honetan sortutako produktu guztiak ekologikoki ekoiztu dira.

Jarraian, editorial bat ezarri dut. Garrantzi berezia duen gertakari bat azaldu, baloratu eta epaitzen duen sinadurarik gabeko artikulua da. Hortaz, bizi dugun pandemia abiapuntutzat hartuz, prentsaren jarrera ideologikoa islatzen saiatu naiz. Bertan ikuspuntu alternatibo bat erakutsi nahi izan dut, orain arte hedabideetan ikusi ez dudana. Koronabirusaren aurrean azaldu nahi izan dut, ikusitakoaz gain, beste aukera batzuk ere badaudela, baina horiei zailtasunak jartzen dizkiete. Gogoetarako bideragarria dela iruditu zait, ondoren bakoitzak bere etxean horren inguruan hausnartu dezan.

Ondoren, irakurleak aldizkaria hartzean eduki bakoitza non dagoen jakin dezan aurkibide bat egin dut. Nahiko minimalista izatea nahi nuen, atal bakoitza argi ikusi dadila, eta horren barnean dagoen lan bakoitzaren ondoan dagozkion orrialdeak zehaztu ditut. Horri ekainaren 23an ateratako irudi bat gehitu diot. Aurkibiderako egokia iruditu zait Aretxabaletan atera nuen argazkia. Aldizkariarekin lotura duela iruditu zait. Urkulu urtegiak eta zuhaitzek ingurumenaren parte dira eta hilabetekari bakoitzeko, edukiarekin lotura duen irudi bat aukeratzea da nire asmoa. Euskal Herriko toki ezberdinak erakutsi nahiko nituzke, bertako inguruak ezagutaraziz.

Aurrerantz jarraituz, lehenengo sailera iritsiko gara: Osasuna. Sail honetan gizakion osasunarekin lotura duten edukiak sortu nahi ditut. Lehenengo ale honetan medikuntza naturista landu dut. Askorako ematen du gaiak eta kasu honetan higienismoa eta sendabelarrak aukeratu ditut. Zatiduran, berriz, erditzeen inguruan idatzi dut. Horiek osatzeko eta garatzeko zenbait aditu elkarrizketatu behar izan ditut:

- **Julio Arroyo** (Guadalajara, 1956). Nafarroako Zuhaizpe bizi osasun zentzoko sukaldaria. Bertako pazienteen elikaduraz arduratzen da. Bestalde, hainbat aldiz baraua egin du. Sukaldari izateaz gain, nekazaria ere bada. Nekazaritza biodinamikoa sustatzen du. 2020ko uztailaren 30ean elkarrizketatu nuen telefonoz, Madrilen baitzegoen.

## Espezializazioa kazetaritzan

- **Antonio Brito** (Santa Cruz Tenerifekoa, 1958). Fuerteventurako ospitaleko obstetra eta ginekologo higienista. Etxeko erditzeetan aditua. 2020ko uztailaren 22an elkarriketatu nuen; bideodei bat egin behar izan genuen Fuerteventuran bizi baita.
- **Josune Epelde** (Azkoitia, 1953). Urteak daramazki erleen munduan murgilduta. Horien bidez ezta, argizaria, propoleoa eta polena bezalako produktuak lortzen dituzte. Ondoren, Epeldek argizariarekin eta zenbait belarrekin ukenduak egiten ditu. 2020ko uztailaren 22an Aikur Erle Museoa (Urretxu) elkartu ginen elkarriketa egiteko.
- **Itziar Larrañaga** (Zestoa, 1953). Medikuntza ofiziala eskainiz Osakidetzan 32 urtez lan egin duen mediku higienista. Bide higienista egiteko aukera eman die hala nahi zuten pazienteei. Bizi dugun egoerak baldintzatuta, bideodei bidez egin genuen elkarriketa 2020ko uztailaren 21ean.
- **Sara Letamendia** (Aizarna, 1962). Hamabost urte inguru daramazki sendabelarrak ekoizten. Horien inguruan ikastaroak ematen ditu eta zenbait azoketara joaten da egiten dituen ukenduak eta sendabelarrak saltzera. 2020ko uztailaren 23an bere etxean, Aizarnan, gelditu ginen elkarriketa egiteko eta hainbat sendabelar erakusteko.
- **Mikel Munduate** (Ordizia, 1972). Belarzain belardendako nagusia. Dendara joaten zaizkion bezeroei laguntzen saiatzen da, gaixotasunak saihestu nahian. Elkarriketa egiteko belardendan gelditu ginen Urretxun, 2020ko uztailaren 21ean.
- **Doita Otxoantesana** (Ondarroa, 1942). Bi minbizi gainditu ditu. Uteroa kendu eta horren eraginez, bularrean koskorak atera zitzaizkion. Bularreko minbizia atzeman eta barau bidez gainditzea lortu zuen mediku higienisten laguntzaz Buñuelen. Telefonoz egin genuen elkarriketa, egoera honek eraginda 2020ko abuztuaren 7an.
- **Josep Pamies** (Lleida, 1948). Enpresari eta sendabelar ekoizlea. Pandemia hasi zenetik polemika handia sortu da Covid-19ari aurre egiteko sendabidea



## Espezializazioa kazetaritzan

existitzen dela sare sozialetan zabaltzearen. Uneoro zentsuratzen ari dira publikatzen duen informazioa. Lleidan bizi denez, telefono dei bidez egin behar izan genuen elkarrizketa, 2020ko uztailaren 24an.

Prentsa honen bigarren saila Elikadura da. Hilabetero nik sortutako errezeta bat argitaratuko dut. Horren bidez, bertako eta garaiko produktuak kontsumitzera bultzatu nahi dut irakurlea. Proposamen guztiak beganoak izango dira eta bertan erabili beharreko osagaiak zeintzuk diren eta prozedura zein den zehaztuko ditut.

Ondorengo sailean, ingurumena landu dut. Gizakia Lurra planetarekin amaitzen ari dela diote batzuek, klima aldaketa zena larrialdi bihurtu da, eta horri aurre egiteko Fridays For Future taldea oso indartsu ibili da azken urteetan. Talde horretako kide bat elkarrizketatzea egokia iruditu zait gaurkotasuna duten zenbait gairen inguruan galdetuz. Bide batez, egiten duten aktibismoa islatu nahi izan dut, eta zatidurarako gai jakin bat nabarmendu dut. Elkarrizketa 2020ko martxoaren 26an egin nion Aitor Martinezi. Konfinatuta geunden garaia zenez, bideo dei bidez egin behar izan genuen.

Hurrengo hamasei orrialdeetan baratze munduaren inguruko fotoerreportajea egin dut. Sail honi Baratzean deitu diot. Apirilean baratzeak hutsik izaten dira. Hori aintzat hartuz, apiriletik abuzturaino izaten den eboluzioa erakutsi nahi nuen, produktuak nola landatu behar diren irakatsiz. Martxoan, ordea, konfinatu egin gintuzten eta fotoerreportaje hau etxeko baratzean landu behar izan dut. Argazkiak beste baratze batean atera nahi nituen berez, baina egoera honekin irtenbide egokiena etxean egitea iruditu zitzaidan.

Behin argazkiak ateratzen hasi eta izugarritzko edizio lana egin behar izan dut egun bakoitzeko, orotara mila pasatxo argazki atera baititut. Horretarako Adobe Bridge programa erabili dut. Horietako batzuk ondoren, Adobe Photoshop bidez egokitu ditut.

Baratzean atalaren amaieran, ilargi egutegi bat sortu dut. Honen helburua irakurleak bere baratzea egitea da. Hilabetero zein hazi erein, zein landare landatu eta zein produktu bildu daitezkeen adieraziko ditut egutegi honen bidez. Hil bakoitzean egutegia eguneratuko da.

## Espezializazioa kazetaritzan

Ilargi egutegiaren parean agenda bat joango da hilero. Oraingoan, irailekoa egin dut, hil honetan Euskal Herrian izango diren hainbat ekintza eta ospakizun nabarmenduz.

Kontraportadan, ekologiari negatiboki eragiten dion pasarteren bat salatuko dut. Horretarako, gaurkotasunezko gertaeraren bat aukeratu eta hori argazki baten bidez islatuko dut. Iraileko aldizkarian musukoen nahitaezko erabilera dela eta, lagun askok plastikozkoak erabiltzen dituztela erakutsi nahi izan dut, eta gainera ingurugiroan botata amaitzen dute zenbaitek. Hori salatu nahian, testu txiki bat gehitu diot irakurleari hobeto ulertu dezan.

### 2.3 Egindako lanaren diseinua

Begi Argizen landutako edukiek, ordea, diseinu jakin bat dute. Bere denbora eskaini behar izan diot maketazioari, originala eta ezberdina izan dadin. Aldizkari osoa Adobe InDesignen bidez egin dut, eta argazkiak eta zenbait ilustrazio Adobe Photoshop eta Adobe Illustrator bidez.

Azalarekin hasi nintzenean, argazkia zein izango zen oso argi nuen, baita aldizkariaren izena. Beraz, horiekin diseinu desberdinak probatzeari ekin nion. Photoshop programarekin izena nekazariaren atzealdean balego bezala jartzea erabaki nuen, bizitasun pixka bat ematen diola iruditu baitzitzaidan. Horretarako, titulua nahi nuen tokian ezarri eta ezabatzeko tresnarekin A letraren beheko aldea ezabatu nuen. Bestalde, izena pixka bat gardentzea erabaki nuen. Letra mota Vogue da, 92 neurriarekin, kolorea, berriz, berde argia. Tituluaren azpian alearen zenbakia eta data jarri ditut.

Azalean fotoerreportajearekin zerikusia duen lerroburua txertatu dut, azaleko irudia fotoerreportajeari baitagokio. Horren azpian fotoerreportajea ikusteko irakurleak zein orrialdetara joan behar duen adierazi dut.

Bigarren orrialdean, editorialaren diseinuarekin jolasten hasi eta sagar itxura ematea egokia iruditu zitzaidan. Nahiz eta sagarrak ez duen zerikusirik editorialean aipatzen denarekin, hilabeteroko editorialei horrelako formak ematea pentsatu dut. Aldizkariari borobiltasuna ematen diola iruditzen zait, ekologiarekin lotura duten formak emanaz. Testuari erreparatuz gero, lehenengo letra gainontzeko testua baino handiago jartzea estetikoki polita iruditu zait.

## Espezializazioa kazetaritzan

Aurkibideari dagokionez, irudia hiru zutabetan banatu dut diseinu original bat sortu nahian. Azpiko aldean sail bakoitzean zer eta zein orrialdetan dagoen zehaztu dut. Azpimarratzekoa da gainera, bakoitzari kolore bat ezarri diodala, gainontzekoetatik bereizi nahian. Bestalde, atal horien lehenengo orrialdean agertuko da dagokion izena bere kolorearekin, eta titulu eta azpitutuluak kolore berean joango dira.

Osasunaren kasuan, esaterako, kolore urdina aukeratu dut. Testua irakurtzeko horren pisutsua izan ez dadin tartekiak eta zatidura gehitu ditut. Horrez gain, aurrerago ere beste kolore batzuetan ikusiko diren loreen ilustrazioak ezarri ditut eskinetan, bizitasuna eman nahian. Argazkiak ere diseinuan oso garrantzitsuak dira, horiek neurri desberdinetan jarri ditut, horrela batzuk handiagotuz, besteak estutuz edota txikituz.

Elikadura atalari naranja kolorea ezarri diot. Diseinu honi dagokionez, errezeta liburu baten itxura ematea otu zitzaidan, irudi handi bat eta ondoan azalpenak idatziz. Horrez gain, diseinua hobetze aldera, erabili ditudan osagaien ilustrazioak airean ezarri ditut eta atzealdea tonu marroixkan pintatu dut.

Aurrera jarraituz, Ingurumena berdez pintatu dut. Elkarrizketa dela aprobetxatuz, galdera bakoitzari kolore bera eman diot, baita lehen aipatzen nuen eskinan dagoen loreari ere. Hemen ere argazkien neurriak aldatzen joan naiz, testuaren arabera, maketazioa moldatuz.

Ondorengo orrialdeetan Baratzean atala ziape-kolorean bereizi dut, bai fotoerreportajea, baita ilargi egutegia ere. Fotoerreportajea bera hainbat ataletan banatu dut eta horren arabera, kronologikoki, maketatzen joan naiz. Nekazariak lanean ari zirenean, argazkiak atera nizkien, egiten zutena islatu nahian.

Lehenengo irudian, baratzea apirila hasieran nola zegoen erakutsi nahi izan dut, nekazaria traktorearekin lanean hasi aurretik. Lehenengo astean lurra aratu eta goldatu zuten, birritan. Horren emaitza argi eta garbi ikusi daiteke baratzeke lurra begiratuz. Irudi desberdinak aukeratu ditut ekintza bera islatzeko. Kasu honetan, xehetasun-plano bat eta bi orokor; baina bi horiek ez dira berdinak. Bat nahiko simetrikoa da, argazkiaren ezkerrean ikusi daiteke traktorearekin lurra goldatu ondoren nola gelditu zen, eta eskuineko aldean, hasiera batean nola zegoen. Ezkerreko plano orokorrean, aldiz, goldatu ondoren nekazaria atxurrarekin erretena egitear dagoela ikusi daiteke. Gainontzeko orrialdeetan argazkiz argazki eman beharreko pausuak ikusi daitezke:

## Espezializazioa kazetaritzan

landatutako produktuak nola hazi diren, eta nekazariak zein lan egin duten. Horiek plano eta ikuspuntu ezberdinak dituzte. Argazki hauek Nikon D3300 kamera eta mini mavic dronearekin atera ditut.

Ilargi egutegiari eta agendari dagokionez, ondoan izatea nahi nituen. Era horretara, agendako egitarauak noiz diren ilargi egutegian ikusi daitezke. Bestalde, baratzeko produktuak noiz erein, landatu eta bildu behar diren jakiteko, egutegiaren beheko aldean zehazten da; adibidez, haziak ilbeheran erein behar direla ikusi daiteke. Egutegiari erreparatzen badiogu, ilbehera eta ilgora noiztik noiz arte diren jakin nahi izanez gero, egutegiaren gainean zehaztu ditut. Hemen ere bizitasun pixka bat emateko lore batzuk ipintzea ideia ona iruditu zait; oraingoan, ziape-kolorekoak, sailari dagokion bezala. Eta agendan egitarauen eguna, gaia, tokia eta azalpena nabarmendu nahi izan ditut.

Aldizkariaren azkeneko orrialdean, garrantzia irudiari eman nahi izan diodanez, testua beheko aldean ezarri dut, tituluari musukoaren kolorea emanez. Horrela batasun jakin bat dute irudiak eta testuak.

Aldizkariaren maketazioa orriz orri aztertu ondoren, testuak maketatzeko erabili ditudan zenbait jarraibide zehaztu nahiko nituzke. Aldizkariko erreportajea eta elkarrizketa hiru zutabetan banatzea erabaki dut, estetikoki politagoa iruditu zait eta irakurtzeko ez da horren astuna. Testuei dagokienez, guztiak, 9,5 neurrian idatzita daude, Baskerville letra motarekin; tartekiak berdin, baina letra lodiz eta titulu guztiak lodiz eta 24 neurrian. Azpтитuluak aldiz, letra etzanean daude, 18 neurrian idatziak.

Testuak non amaitzen diren irakurleak jakin dezan puntu bat du testu bakoitzak amaieran, sailaren arabera dagokion kolorekoa. Testuak, argazkiak eta ilustrazioak zeinek egin dituen adierazteko, berriz, ilustrazio txiki batzuk erabili ditut. Testuaren egilea arkatz batez adierazten da, argazkilariak kamera baten bidez eta ilustrazioak nork egin dituen pintzel batez. Egileen izenak 8 neurrian idatzi ditut. Aldizkariko testuak baino txikiago.

Argazki oinen kasuan, argazkiaren gainean laukizuzen zuri bat jarri dut eta ondoren hori pixka bat gardendu. Horrela argazki oina hobe irakurri daiteke. Testu hauek 8 neurrian idatzi ditut argazkian ikusten denaren inguruan informazioaren bat nabarmenduz.

### **3. PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA**

---

Proiektu honen bidez, orain arte sortu gabe zegoen aldizkari bat sortzea lortu dut. Ikuspuntu alternatibo honekin bat egiten duen jendearentzat interesgarria izan daitekeela uste dut. Izan ere, euskarazko gainontzeko komunikabideek horrelako gaiak lantzen dituztenean, beste ikuspuntu bat erakusten dute, askotan, berriz, ez dituzte sakonean lantzen. Begi Argizek, ordea, hainbat berezitasun dituela nabarmendu nahiko nuke.

Arestian aipatu bezala, ekologiaren inguruan kontzientzia areagotuz doa, baina hobetzeko asko dago. Hori dela eta, eskaintzen dudan informazioarekin jendeari begiak ireki nahi dizkiot, ohitura onuragarriak erakutsiz. Patxadaz irakurtzeko aldizkaria da, eta irakurlea irakurtzen doan heinean zer hobetu dezakeen konturatuko da.

Mundua, osasuna eta gu geu zaintzea horren garrantzitsua den garai honetan, nik uste aldizkari honek etorkizunera begira aukera asko dituela. Gainera, Begi Argizen balio berberak dituzten irakurle asko daude gizartean, eta horiek euskara hutsean eta ekologian espezializatutako edukiak irakurtzeko eskubidea dute. Euskal ekologia zaleei zuzenduta badago ere, ideia horien inguruko kontzientzia areagotu nahi duen edonor gonbidatuta dago Begi Argiz hilabetekaria irakurtzera.

Bestalde, paperezko euskarria izanik, kostu batzuk izango ditu, baina irakurleek, denda eta enpresa ekologikoen publizitateak eta diru-laguntzek Begi Argiz aldizkaria hilero egitea posible egingo dute. Aurrera begira, indarrean jarri daiteke harpidetza sistemaren bat. Argi dago Euskal Herrian horrelako aldizkari baten beharrezana dagoela.

### **4. ONDORIOAK**

---

Aurrerago esan dudan bezala aldizkari bat neuk soilik sortzea izugarritzko erronka izan da niretzat. Beti amestutako erronka pertsonala zen. Eta orain hemen naukazue 32 orrialdeko hilabetekari bat esku artean dudala.

Proiektu honek ekarpen asko egin dizkit. Ekologiaren parte diren gaiei buruz gehiago ikasteko aukera paregabea izan da, baina, batez ere, aldizkari bat egiteak zer nolako lana suposatzen duen ikusi eta ikasi ahal izan dut. Kazetari lanak denbora eta esfortzu handia eskatzen du, baina emaitzak benetan merezi du.

## Espezializazioa kazetaritzan

Duela lau urte, selektibitatearen atarian, ez nekien zer ikasi. Pistinara salto egin eta bete-betea asmatu nuen. Urtez urte gero eta argiago izan dut nik kazetari izan nahi dudala. Zenbat bizipen, irakaspen, ezagupen... eta etorriko diren guztiak, baina beti gehiago ikasteko prest. Lau urte hauek asko eskaini didate eta esan dezaket, Begi Argiz proiektua urte guzti hauen isla dela.

Egia da urte luze hauetan asko ikasi dudala, baina proiektu honekin inoiz baino gehiago ikasi dudala sentitzen dut. Gainera, horrenbeste denboran gai bakar batean espezializatu beharra esperientzia berria izan da, eta orain konturatu berri naiz zeinen lan politak eta sakon landuak egin daitezkeen kazetaritza espezializatuan. Begi Argiz aldizkariak lan handia izan du atzetik, elkarrizketa sakonak egin behar izan ditut, hainbat gairen inguruan aztertu eta halako lan potolo bat egiteko elkarrizketak ondo landuta behar nituen aurretik. Horietako bakoitzak zerbait irakatsi dit, eta horien antolamendua oso garrantzitsua dela ikasi dut. Izan ere, elkarrizketa asko izan dira aldi berean eta informazioa ondo kudeatzen ikasi dudala iruditu zait, ondoren emaitza biribil bat lortzeko.

Baina edukiak landu ondoren, maketazioak ere zelako lana eskatzen duen ikusi dut. Lau urte hauetan, pare bat aldizkari diseinatu behar izan ditugu, baina taldean. Bakarrik egiteak esfortzu handia eskatu dit, eta batez ere denbora. Egia esan asko disfrutatu dut, eta esan dezaket diseinu landu eta originalik gabe ez litzatekeela lan bera izango. Zenbait kasutan, diseinu eta maketazioei behar besteko balioa ez zaiela ematen iruditzen zait.

Amaitzeko, gaur egungo gizartea korrika eta presaka bizi da, eta honelako kazetaritza espezializatu bat sortzeak aldizkaria patxadaz irakurtzera bultzatzen ditu irakurleak. Gai bakoitza tentuz landuta dago, gaurkotasuna alde batera utzi gabe, eduki guztien lanketa sakona eginik. Gai bakoitzari merezi duen arreta eta espazioa ematen saiatu naiz eta horrek aldizkaria aberasten duela esan dezaket.

## BIBLIOGRAFIA

---

Dulce Revolución (2020). *Se permiten fármacos con graves consecuencias [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://dolcarevolucio.cat/language/es/se-permiten-farmacos-con-graves-consecuencias/> [Kontsulta eguna: 2020/07/14].

Euskaltzaindia (2020). *Ekologia*, eskuragarri hemen: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=ekologia&antzekoak=ez&option=com\\_hiztegiabilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=189&lang=es&bila=bai](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=ekologia&antzekoak=ez&option=com_hiztegiabilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=189&lang=es&bila=bai) [Kontsulta eguna: 2020/08/30].

Euskaltzaindia (2020). *Naturopatia*, eskuragarri hemen: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=naturopatia&option=com\\_hiztegiabilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=naturopatia&option=com_hiztegiabilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai) [Kontsulta eguna: 2020/08/04].

Kalcker, Andreas (2016). *Salud prohibida: incurable era ayer*. Espainia: Voedia.

Prensa Senado (2020). “Aprueban norma que permite la producción y uso adecuado de la solución de dióxido de cloro para prevenir y tratar el Covid-19”, *Cámara de Senadores [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://web.senado.gob.bo/prensa/noticias/aprueban-norma-que-permite-la-produccion-y-uso-adecuado-de-la-solucion-de-di-oxido-de> [Kontsulta eguna: 2020/07/16].

Ritchie, Hannah (2019). “Half of the world’s habitable land is used for agriculture”, *Our World in Data [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://ourworldindata.org/global-land-for-agriculture> [Kontsulta eguna: 2020/08/10].

UNAM (2020). “Hipócrates”, *Facultad de Medicina UNAM [On-line]*, eskuragarri hemen: <http://www.facmed.unam.mx/Libro-NeuroFisio/Personas/Hipocrates/Hipocrates.html> [Kontsulta eguna: 2020/07/29].

Smith, Niall (2019). “US tops list of countries fuelling the waste crisis: Waste Generation and Recycling Indices”, *Verisk Maplecroft [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://www.maplecroft.com/insights/analysis/us-tops-list-of-countries-fuelling-the-mounting-waste-crisis/> [Kontsulta eguna: 2020/08/01].

## Espezializazioa kazetaritzan

Zuhaizpe (2020). *Medicina Higienista [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://www.zuhaizpe.com/medicina-integrativa/medicina-higienista/> [Kontsulta eguna: 2020/08/03].